



ZALDIBIAKO  
UDALA  
zaldibia.eus

## EUSKARAREN AURKAKO ERASO JUDIZIALAREN AURREAN ZALDIBIAKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

### ZIOEN ADIERAZPENA

2023 urtea hasi berritan EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak euskararen aurkako epaiak eman ditu berriz. Zehazki, Barakaldoko Udalaren erabaki bat baliogabetu dute CCOOen eskariz, eta azpikontratatuak zerbitzuetan gutxieneko euskara maila eskatzearen aurka agertu dira epaileak. Erabaki dute euskara ezin dela langileentzako betekizun gisa ezarri udalerrri horretako kultur zerbitzuez arduratzeko enpresa bat kontratatzeko lehiaketan.

Era berean, Gasteizko Administrazio Auzitegiak Arkautiko akademia behartu du berriz hartzera bere momentuan euskarazko B2 maila ez egiaztatzeagatik lan poltsatik kanpo utzitako udaltzain-hautagaiak, UGT sindikatuak jarritako helegitearen ondotik. Epaia irmoa da, gainera, administrazioak ez baitu helegiterik jarri.

Hauek ez dira EAEko Justizia Auzitegiek emaniko tankera honetako lehen epaiak. Aurrez ere, euskara sustatzeko udal administrazioen ekimenak baliogabetu izan dituzte epaitegiek, besteak beste, 2018an Lasarte-Oriako Udalaren haurrei zuzendutako ekintza kulturalak diruz laguntzeko ordenantza, 2021ean Iruneko Udalaren udaltzaingo prozesuan ezarritako hizkuntza eskakizunak, Atarrabiako Udalaren erabakia lantalde organikoko lanpostu guztietan euskara jakitea meritua izateko erabakia, 2022an Laudioko Udalaren langile baten hizkuntz eskakizunaren erabakia,...

Euskararen aurkako epaiak izan dira, eta hizkuntza-politikaren judizializazioaren baitan ulertu beharreko erabakiak. Izan ere, egun ezarrita dagoen ofizialtasunaren, eta ofizialtasunaren ondorio juridikoen irakurketa are murriztagoa egiten ari dira epaien zein jurisprudentziaren bidez. Bide honetatik, euskaldunon eskubideak are gehiago murriztu nahi dituzte ofizialtasunaren irakurketa murriztago baten bidez. Herritarrek udal zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko eskubidea dute, eta erakunde publikoei, guztiei, baita judizialei ere, eskubide horren bermatzaile izatea dagokie.

Baina epai hau ez da euskararen aurkakoa soilik: EAEko araudiaren eta udal autonomiaren aurkakoa ere bada. Batetik, 2/2016 Euskadiko Tokiko Erakundeen Legea urratzen du. Lege hark udaloi hizkuntza politikan erabakiak hartzeko eskumenak ematen dizkigu, eta legea garatzen duen 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa, oso argi uzten ditu euskara lehenesteko bideak, arrazoi askorengatik. Bada, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Tokiko Erakundeen Legeak hizkuntza politikan udalen eskumenak argi zehazten ditu, eta 2019ko dekretuak



**ZALDIBIAKO**

**UDALA**  
zaldibia.eus

ere udalei euskara lehenesteko beharra ezartzen die, hizkuntzaren normalizazioan urratsak emateko.

Hori dela eta, hurrengo proposatzen dugu:

## **MOZIOA**

Zaldibiako udalbatzak honako erabaki hau hartzen du:

1.- Gogor salatzen dugu epaitegiek abiatu duten hizkuntza-politikaren judizializazioa, eta euskararen aurka ematen ari diren epaiak.

2.- Euskal Herriko administrazioei, epaitegiei, eragile politiko, sindikal eta sozialei herritarren hizkuntz eskubideak bermatu ditzatela eta euskararen sustapenaren alde egin dezatela eskatzen diegu.

3.- Udal honek, legedia betez, ondorengo konpromisoak hartzen ditu:

- Udal zerbitzuetan herritarrei lehen hitza euskaraz egitea bermatuko du.
- Zerbitzu publiko guztiak euskaraz eskaintzea bermatuko du.
- Indarrean diren legediak aplikatuz, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuko ditu, beti ere, Tokiko Erakundeen Legeak hizkuntzaren normalizazioan aurrera urratsak egiteko Udalei jartzen dizkien behar eta eskumenak oinarri izanda.

**2023ko urtarrilaren 30ean, Zaldibiako Udaleko ohiko osoko bilkuran aho batez onartua.**

**EH BILDUko aldeko 5 boto eta EAJ-PNVko aldeko 2 botoekin aho batez onartua**